



Jende asko ari da parte hartzen Gabonetako Haur Parkean Tolosan

ZERBITZUA ▶ Gurasoak eta haurrak oso gustura ageri dira eskaintzen duen zerbitzuarekin

DISKOA ▶ Mila bisitari izatea espero dute antolatzaileek; gaur, 'Xurdin' diskoa aurkeztuko dute ▶ 2



Gabonetako Haur Parkea. E.AYUSO



Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketako sariak banatu dituzte

ZIZURKIL ▶ Ainitze Etxaniz helduen artean eta Maria Larburu, Nerea Marcos, Jon Ander Velasco eta Eneritz Iraola beste mailetan, izan dira atzo banatu ziren Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketako irabazleak. Argazkian, irabazleak eta udal ordezkaria atzoko ekitaldian. IMANOL GARCIA ▶ 5

ALEGIA ▶

Txintxarri abesbatzak mezetan abesten hasiko du Urte Berria

Urteroko ohitura bihurtu da emanaldi hau; obra ugari eskainiko ditu ▶ 6

BIHAR EZ DA HITZA-RIK IZANGO

Bihar, Urte Berri egunean, ez da HITZA-RIK argitaratuko, egunkari guztietako langileek gaurko egunean jai hartuko dutelako, ohi duten moduan. Etzi, igandea, urtarrilak 2, berriro zuekin izango gara eskualdeko informazioa zuen etxeetara helarazten.

URTE ZAHARREKO FESTA

Abenduak 31

16:00. Txorimalo erakusketa Trianguloan

23:30. Testamenduen irakurketa Abastos plazan

24:00. Txorimaloen erreketak Belate pasealekuan

00:30. Musika festa Abastos plazan

IRAZKI KULTURANIZDUN ELKARTEAK antolatuta

Sarrera doan • Taberna izango da Tolosar guztiak daude gonbidatuta



ABENDUAK 31, arratsaldeko 7tan

Bilbatoko Plazatik Zuzenkiela Ipar. Arrege plazara zuzen

Manifestazio ixila



AIZTÓNDO FAILARA gure eskualde guztian alde!!!

EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA



GIZARTEA ▶

INKESTA ▶ ZER GUSTATU ZAIZU GEHIEN GABONETAKO HAUR PARKEAN?**JOSU GOENAGA**

7 URTE. TOLOSA



«Niri txirristatik muturrez aurrera nire burua botatzea eta gaztelu puzgarrira sartzea gustatu zait gehiena parkean».

EDURNE LOPETEGI

8 URTE. TOLOSA



«Gaztelu puzgarrirari eta txirristan saltoka ibiltzea gustatzen zait. Oso ondo pasatzen dut Gabonetako parke honetan».

MIREN IZAGIRRE

6 URTE. TOLOSA



«Niri gehiena gaztelu puzgarrira gustatu zait. Salto handi-handiak egiten ditut bertan eta asko gustatzen zait hala ibiltzea».

IRATXE ARREGI

6 URTE. TOLOSA



«Politena igel itxurako txirrista handia da. Txirristatik jeistea oso dibertigarria da. Baina, gaztelu puzgarrira ere asko gustatu zait. Oso ondo pasatu du parkean».

JON ZUMALAKARREGI

6 URTE. ORMAIZTEGI



«Eskulanak egitea da gehiena gustatzen zaidana. Plastilinarekin jolastea eta marraztea asko gustatzen zait eta oso ondo modatzen naiz. Parkeko txirrista ere polit-polita da».

Gabonetako Haur Parkean haur eta gurasoak elkaturik

Gurasoak oso gustura daude Gabonetako Haur Parkeko zerbitzuekin; mila haurren bisita espero dute antolatzaileek



Beotibar pilotalekuan urtarrilaren 2ra arte irekita egongo den Gabonetako Haur Parkea. EDURNE AYUSO

EDURNE AYUSO

Aurten estrainezkoz, Beotibar pilotalekuan jarri du Udalak Gabonetako Haur Parkea. Abenduaren 21ean ireki zen eta urtarrilaren 2a bitartean eskualdeko haurrek gozatzeko gune nagusia ari da izaten. Haur Parkea Tolosako Sointek enpresa kudeatzen ari da, Gazteria Sailarekin elkarlanean. Sonia Ezkerrak, Sointek enpresako ordezkaririk, Htzari adierazi dionez «Sointek enpresan herriz-herriz lan egitera ohituta gaude. Eskaintza zabala dauguz: Top Euskaraokoa, Disko Top-a,

Xurdin Leidorren laster

Sointek Tolosako taldeak, haur-errentzako lan oso berezi bat prestatu du: *Xurdin ipotxen munduan*. Lan hau, antzerki obra batek, disko batek eta DVD batek osatzen dute.

Antzerki hau kalean nahiz aretoetan eskainiko dute hemendik aurrera. Gaur bertan aurkeztuko dute diskoa Beotibarren, 16:30ean, eta urtarrilaren 22an Tolosako Leidor zinemaren estreinatuko dute antzezlan.

Diskoan, Sointek taldeko kideez gain, Tolosako sei haurrek ere parte hartzen dutela ere esan behar da: Aitzol Morenok, Ane Gorostegik, Aitor Torresek, Maria Pradak, Yoel Marcok eta Paula Castrok.

Antzerki obra honetako protagonista Xurdin izeneko ipotxa da. Xurdin beste ipotx batzuekin batera *Alaitasunaren basoan* bizi da. Egun guztia basoan pasatzen dute jolasen, baina, egun batean, Onto izeneko gizaki maltzu-



Diskoaren azala. HITZA

rrarekin egiten dute topo. Pertsonaia gaizto honekin tipogegirakoan hasiko da benetako istorioa. Xurdinek, Zirri, Borro, Haizeder eta Dofasol Jaurri izeneko pertsonaia ezagutuko ditu. Xurdinek.

Zortzi abesti sartzen dira diskoan: *Xurdin, Dofasol Jaurri, Xuabe, Urtxintxak, Rarrobera, Loretxoa, Paristik datorren artista eta Itsasontzi baten*.

Xurdin ipotxen munduan lanaz gozatu nahi baduzue ez ahaztu, urtarrilaren 22an Leidor aretoan estreinatuko dutela antzezlan berri hau. ◀

HAUR PARKEA ▶**ABENDUAK 31**

16:30. *Xurdin ipotxen munduan* disko aurkezpena.

URTARRILAK 2

17:00. Sum Magoa.
22:00. Diskotop, alkoholik gabeko disko festa.

ORDUTEGIA

10:00etatik 13:30era eta
15:30etik 20:00etara.

Gaztelu puzgarriak, haurren-tzako herri kirola bereziak eta hainbat gairen inguruko tailerrak...».

Gabonetako Haur Parkera gerturatu denak ez du aspertzeko aitzakirik. Haurren-tzako nahiz gurasoentzako zerbitzuak antolatu dituzte. Zenbait ekitaldi egunerokoak dira eta beste batzuk aldiz, egunero aldatzen dira. Gaztelu puzgarriak, tailerrak, kafetegia, jantzigela eta haurtzaindegia esate baterako, egunero daude irekita, goiz eta arratsalde. Sonia Ezkerrak azaldu duenez, «gurasoengana asko pentsatu dugu eta gurasoak gainera, oso gustura omen daude. Euren seme-alabak ekartzen dituzte eta hauek jolastean duten bitartean kafetegian lasai egoteko aukera dute».

Egunero eskaintza desberdinak ere izan dira. Pasa diren egunetan Euskaraokoa, Lur Korta ipuin kontalaria, mozzorro festa eta herri kirolak egin dituzte Beotibarrera gerturatu diren haurrek. Ezkerrak azaldu duenez, «etorri diren haurren arabera moldatu ditugu eguneroko ekintzak». Tailerrak ere egin dituzte, egunero gai desberdin baten inguruan. Sukaldaritzak, txontxongiloak, birziklapena eta marrazketa landu dituzte. Haurrek ez ezik, gurasoek ere izan dute ondo pasatzeko modua. Sonia Ezkerrak Htzari azaldu dionez, «gurasoengana eta seme-alaben arteko har-tu-eman sustatzeko toka txapelketa bat egin dugu aste honetan. Oso ondo pasa dute gutxiak».

Gabonetako Haur Parkean orain artean «oso harrera ona izan du. Goizetan ez da horrenbeste haur izaten, baina, arratsaldeetan Haur Parkea bete egiten da». Egin dituzten kalkuluen arabera, Gabonetako Haur Parkera orain arte etorri diren haurrak kontuan hartuta, gutzira, mila haur ingururen bisita izateko espero dute.

Gaur eta etzi —urtarrilak 2— ere Gabonetako Haur Parkea irekita egongo da goiz eta arratsalde.

ARAMBURU
Salgai (Tolosa). Pisua handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran.
Salgai (Tolosa). Pisua altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean, 44.000.000 pta.
Salgai (Tolosa). Pisua igogailuarekin Larramendi kalean. 30.000.000 pta.
Salgai (Tolosa). Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Tolosa). Lokal komertziala Errementari kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak alokatzen dira Tolosako leku ezberdinetan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶**SALGAI**

Etxebizitza. Alegiako Larraitz auzoan, etxebizitza salgai. 680 680952.

Baxua. Baxu elektikoa salgai. 620 156555.

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. Interesatuak deitu, 943 691933 telefono zenbakira.

GIZARTEA ▶

Sahararen alde ari da Tolosaldea, eta zu?

Tolosaldea Sahararekin elkarteak eta Udalak deia egin dute Saharako errefuxiatuentzat «dirua eta produktuak» biltzeko

IRATXE ETXEBESTE

«Tolosaldea Sahararekin elkarteak, Tolosako Udalarekin eta Polisarioak Euskadin duen ordezkaritzarekin batera, saharar herriaren alde antolatuta duten kanpainan parte hartzeko deia egiten dio herriari». Era horretara aurkeztu dute Sahararen aldeko taldeko kideek Gabonetarako abiarazi duten kanpaina. *Sahararen aldeko euskal karabana; piztu itxaropena* lelopean, elkartasunerako bidea erakutsi nahi die Tolosaldea Sahararekin elkarteak herritarrei. Izan ere, Saharako herriak aurrera egingo badu «ezinbestekoa da kanpaina hau aurrera eramatea». Bi dira, bada, kanpaina horren helburuak: batetik, diru laguntzak eskuratzzea, eta, bestetik, produktuak biltzea.

Atuna, azukrea eta konpresak lortu nahi dituzte Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek, bereziki, «errefuxiatu sahararrak dauden kanpamentuetara eramateko». Elikagaien eta bestelako produktuen bilketa hori abian da honezkero, eta datorren urte berriaren hasieran amaituko da; urtarrilaren 6an, hain zuzen ere.

«Duela 25 urte baino gehiago, Marokoko tropek sahararren lurraldeak okupatu zituzten, lege guztien gainetik. Geoztik, sahararrek arazo handiak dituzte, eta, hain zuzen ere, herritarrak arazo horiez sentibilizatzea ere lortu nahi dugu kanpaina honekin. Bide batez, inolako zalantzarik gabe, errefuxiatuta dauden sahararren elikatze maila hobetzen lagunduko du kanpainak», adierazi dute Tolosaldea Sahararekin elkarteak.

Elkartasunez jokatzeko, eta Saharako biztanleak laguntzeko asmoa dutenek bi aukera dituzte, hortaz: produktuak edota dirua ematea. Elikagaiak eta produktuak Kultur Etxean utz daitezke, Laskorain ikastolakoek eraikinaren behealdean jarri duten Merkatu Txikian. Horretarako, bertara agertu besterik ez dute egin behar herritarrek, Merkatu Txikia zabalik dagoen orduetan: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Diru laguntza eman nahi iza-

tera, berriz, kontu korrante hau jarri dute eskura ekimenaren sustatzaileek: Euskadiko Kutxa 3035.0080.94.0800054177.

Udaletik ere, laguntza

Tolosako Udalak ere diruz lagunduko du Tolosaldea Sahararekin elkarteak. Izan ere, he-

rritik nazioarteko laguntza bultzatzen duten Gobernu Kanpoko Erakundeei 7.500 euro ematea erabaki dute udal ordezkariak; horietako bakoitzari 300 euro emango dizkio. Hala ere, eta Tolosaldea Sahararekin elkartearen bidez udan eskualdera etorri ziren haurrei ongi-etorria emateko egin zie-



Ama-seme sahararrak barrez. I.T.

ten festak utzitako diru galerari buelta emateko, 935,95 euro jasoko ditu elkarte horrek Udalaren eskutik. Tolosako Udala aspalditik dago anaituta Saharako herri batekin, eta Polisarioarekin elkarlanean, udan herrira etortzen diren haur sahararrei Euskal Herria erakus-

teaz gain, haiei mediku azterketak egitea ahalbidetzen du, eduki litzaketen gaixotasunei irtenbidea emateko bidean.

Udalaren diru laguntza jasoko duten GKE guztiak herrikoak dira: Tolosaldea Sahararekin, Amigos de Cuba y Palante, Irazki eta Palestinarekin Elkartasuna elkarteak eta Santa Maria parrokiako Misio Taldeak 300,51na euro jasoko dituzte, bada. Bestalde, Udalak 5.098 euro emango ditu Euskal Fardoak laguntzatik El Salvadorreko Segundo Montes komunitatean ur edangarria jartzeko dagoen proiekturako. «Hirugarren Munduan, garatzeko bidean diren herrialdeetan honezkero abian diren proiektuak bultzatzeko balioko dute Udalak emandako laguntzeko».

Tolosa Hiri Komertziala

urte berri on!



Tolosa Hiri Komertziala

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Urte berri on

Badirudi gaur gauean denbora gelditu egiten dela une batez. Eta une horretan, urtez aldatzera doan une jakin horretan, sakon-sakon hartzen dugu arnasa, geure barrura begiratu, hausnartu, eta gogo eta itxaropenez betetako urte berri bati ekiteko prestatzen gara. Etxekoekin, familiar bizitzen dugu daukagun ederrena eta garrantzitsua, eta, benetan, goza dezazuela opa dizuet, une horrek merezi duen ahalmen guztiarekin.

Tolosa ere familia handi bat dela esan dezakegu, eta berak ere, gure antzera, proiektuz eta itxaropenez jositako urte berri bati ekiten diola. Uste dut guztiok jabetzen garela eta ezagutzen dugula gure herriak etorkizunari begira bizi duen une be-

rezia. Badirudi bere fundazioaren urteurrenaren gertutasunak proiektuak eta ekimenak dantzan jartzen dituela eta guztiok dei egiten digula parte hartzera eta bultzada berri bat ematera, Tolosak merezi eta behar duen berrikuntza prozesuan.

Urte berriari begira, gogoeta, asmo on eta berrien une berezi hau baliatu nahi nuke gure herri-rirako ditugun proposamen nagusiak helarazteko ere. Eta guztiok elkarrekin gauzatu, eta elkarrekin partekatze eta gozatzeko aukera izan dezagula. Horixe espero eta nahi dut.

Honen guztiaren oinarri, du-darik gabe, oraindik orain 2005. urterako onartu ditugun aurrekontuak dira, eta esan behar da gure historian izan diren handienak direla oraingo hauek: 28.667.000 euro, eta horietarik

% 44,5 inbertsioetara bideratuko dira. Hauen artean aipatzenkoak dira Usabalgo kirolgunea, Leidor zinemaren zaharberri-zea eta Zerkausiaren birmoldaketa. Hiru oinarriko ekipamendugune Tolosa bezalako zerbitzudune garrantzitsu batentzat.

Bigarren atal batean, Apatta Errekako industrialde berria azpimarratu nahiko nuke, gainean dugun urte berri honetan hasiko baitira lehenengo enpresak bertan eraikitzen. Era berean, nabarmentzekoak dira Alde Zaharren birgaitzea, Oria ibaiaren ezkerreko aldearen berrantolaketak eta Iurreamendi egoitzaren zaharberri-zea. Argi dago aurreikusitako hirigintzan handi hauek tolosar guzti bizi-baldintzak hobetzen lagunduko dutela.

Herriko mugikortasunari eta garraioari dagokienez, hiribu-

sak bere lehenengo urtean izan duen harrera ona aipatu eta nabarmendu behar da. 130.000 bidaiarik erabili baitute, eta ahalegina egingo dugu aurrerantz ere kopuru hori igotzen joan dadin. Horrekin batera, TAO eta Tolosa iparraldetik hegoaldera zeharkatuko duen bidegorri berriaren irekiera dira gure herrian komunikazioak eta mugikortasuna errazteko abian jarritako ekimen batzuk.

Bestalde, gazteriari zuzendutako ekimenak dira, besteak beste, gure arreta bereziki bereganatzen dutenak. Esaterako, % 29 igotzu gazteen jardueretara bideraturiko partidak. Kultura eta astialdiko programak ugari eta asteke egun guzti-tara zabaldu nahi ditugu, baina betiere gazteen beraien parte-hartze zuzena bultzatuz.

Horiek dira Udal honek

urte berriari hasiera emateko abian jarriko dituen proiektu batzuk. Guztiak adostasun eta parte-hartzearekin antolatuta ditugu, eta, jakina, tolosar guztiak aukerak eta bizi-kalitatea hobetuko dituen errealitate bihurtzeko gogo biziarekin egin dugu. Urte osoa daukagu aurretik hitzetatik ekintzetara igarotzeko eta egitasmoak egia bihurturik ikusteko.

Hauxe da hastear dugun urte berri-ko gogoa. Hona hemen, Tolosak bere egitasmo eta proiektu berri guztiak gauzatu, eta bekean eta anaitasunean gozatu ahal izatea. Honenbestez, zorionak eta urte berri on!

JOKIN BILDARRATZ ▶ TOLOSAKO ALKATEA

KIROLA ▶

San Silvestre elkartasun krosa, gaur

16:00etatik aurrera irtengo dira Alde Zaharretik korrikalariak mailaz maila

IRATXE ETXEBESTE

Samaniego-Orixe ikastetxeko Kirol Eskolak antolatuta, eta Tolosa Hiri Komertzialaren, Igarondo elkartearen, Tolosako Udalen eta Tolosa CFren laguntzarekin, VII. San Silvestre elkartasun krosa izango da gaur Alde Zaharreko kaleetan zehar. Elkartasun kros horretan jasotzen den dirua Indira bidaliko dute antolatzaileek San Bartolome Miso Taldea eta Calcuta Ondoan Gobernu Kanpoko Erakunde bitartez.

Ahalik eta diru gehien biltzeko helburuarekin, irteeran eta helmugan diru bilketa egingo dute antolatzaileek.

Haurrek, gazteek eta helduek izango dute aukera, urtero bezala, krosetan parte hartzeko, benjamin, alebin, infantil eta nagusien mailan banatuta. Izena ematerakoan kamisetak banatuko dituzte, eta nagusiek bakarka edo taldeka (gehienez, lauko taldeak) irten ahal izango dute lasterka.

16:00etan hasiko dira lasterketak Berdura plazatik, eta Al-

de Zaharreko kaleetan barna izango da ibilbidea.

Mailatan banatuta abiatuko dira korrikalariak irteera lekitik. Lehenik, 16:00etan benjamin neskek irtengo dute; ordu laurden geroago, benjamin mutilek; 16:30ean, alebin neskek eta 16:45ean, alebin mutilek. 17:00etan sari banaketa egingo dute Samaniego-Orixe ikastetxeko arduradunek benjamin eta alebin mailaketa parte-hartzaile irabazleen artean, eta sari banaketa hori amaitutakoan hasiko dira gainerako partaideak korrika.

17:30ean hasiko dira lanean infantil neskek, infantil mutilek eta helduek; horiek guztiak elkarrekin irtengo dute, eta ordubete geroago, 18:30ean, hain zuzen ere, sari banaketa egingo dute kategoria bakoitzeko lehiakideen artean.

Krosetan parte hartu nahi dutenek gaur bertan izango dute izena emateko aukera. Lasterketaren irteera gunera agertu beharko dute korrikalariak horretarako, proba hasi baino ordubete lehenago, 15:00etan.

GIZARTEA ▶

Intxurre taberna zabalik izango da egunotan

Tolosako Intxurre taberna zabalik izango da gaurtik aurrera. Halaxe adierazi dute hura kudeatuko dutenak. Urtarrilaren 9a bitarte izango da irekita, egunero, 17:00etatik aurrera. Gaez ere zabalik izango da.

KIROLA ▶

Anoetarako autobusetan plazak daude

Periko Alonso peñak Realeko partiduetara Anoetara antolatzen duen autobusetan plaza libre batzuk gertzen dira Espainiako Liga amaitzeko falta diren hamar partiduetarako. Txarrelak Shanti Kirolak denda eskura daitezke.

GIZARTEA ▶

Urte Zaharreko festa antolatu du Irazkik

Irazki elkarteak Urte Zahar gauerako festa antolatu du gaurko. 16:00etan txorimalo erakusketa izango da Trianguloan; 23:30ean horiei buruzko testamentuaren irakurketa Abastosen, eta txorimaloak erre ostean, musika eta festa goizalderara arte, Abastos plazan.

KULTURA ▶

Poxpolo ta Mokolo Leidor aretoan izango dira arratsalde

Emanaldi polita, berezia prestatu dute pailazo tolosarrek eskualdeko haur eta gurasoentzat



Poxpolo eta Mokolo. HITZA

I. ETXEBESTE

Poxpolo ta Mokolo pailazo tolosarrek eta haien konpainiak emanaldi polita prestatu dute eskualdeko haurrentzat eta gurasoentzat. Izan ere, Leidor zinema aretoan ariko dira gaur, 18:00etatik aurrera. Disko berria kaleratu dute berriki pailazoek, eta bertako kantua eskainiko dituzte Gabonetarako prestatu duten ikuskizun berezi horretan. Bertara joan nahi dutenek aldeaz aurretik eskuratu ahal izango dituzte sarrerak Kultur Etxean; baita emanaldi orduan leihatilari ere.



AZPEITIKO IV. SAN SILBESTREA

ESKOLARRAK: 10:30ean
KADETE ETA JUBENILAK: 12:00etan 4.150 metro izango dira.
BESTEAK: 12:00etan 8.300 metro izango dira.
 * AURRENEKOENTZAT DIRU SARIK IZANGO DIRA.
 * PARTAIDE GUZTIEN ARTEAN BIDAI TXARTELAK ZOZKATUKO DIRA.
Izen-ematea, 3 euro: Azkoitia, Azpeitia, Zestoa, Zumai, Getaria, Zarautz, eta Orioko Kiroldegietan, HITZAKo bulegoetan edo internet bidez: www.herrikrossa.com (antolatzaileek HITZARA bideratuko dute diru hori)

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketako sariak banatu ziren atzo

Aintze Etxaniz anoetarrak irabazi du nagusien mailan; guztira 183 lan aurkeztu dituzte ipuin lehiaketara

IMANOL GARCIA

Teodoro Hernandorena III. Ipuin Lehiaketaren sariak banatu zituen Udalak atzo Atxulondo kultur etxean. Juan Kruz Igerabidek eta Patri Urkizu epaimahaikideek lehiaketara aurkeztu ziren 183 ipuinen artean irabazleen zerrenda erabaki behar izan zuten.

Guztira bost maila zeuden, adinen arabera sailkatuta. A mailan (6-8 urtekoena), lehenengo saria 8 urteko Maria Larburu billabonatarrentzat izan zen *Katalejuen memoria* ipuinarengatik. Bigarren saria, 7 urteko Nadia Boujemaa zi-



Ipuin lehiaketaren irabazleak Sagrario Jauregiberri zinegotziarekin. i.a.

zurkildarrentzat izan zen *Zapatila gorri nekatuak* ipuinarengatik.

B mailan (9-11 urtekoena), lehenengo saria 10 urteko Nerea Marcos andoaindarrak *Nire lehengusua eta ni, lur globoa* ipuinarengatik. Bigarrena, 11 urteko Leticia Ugalde andoaindarrak *Hau sinesgaitza da!* ipuinarengatik.

C mailan (12-13 urtekoena), lehenengo 12 urteko Jon Ander Velasco andoaindarrak, *Maitasunaren indarra* ipuinarengatik. Bigarrena, 13 urteko Garazi Usandizaga andoaindarrak *Sei hilabete atzera* ipuinarengatik.

D mailan (14-16 urtekoena), lehenengo saria 15 urteko Eneritz Iraola anoetarrak *Muga guztien gainetik* ipuinarengatik. Bigarrena 15 urteko Leire Rodriguez andoaindarrak *Faharren egunerokoa* ipuinarengatik.

E mailan (17 urtetik aurrerakoena), lehenengo saria 22 urteko Aintze Etxaniz anoetarrak *Bitartean heldu eskutik* ipuinarengatik. Bigarrena, 20 urteko Leire Zubeldia zizurkildarrentzat *Felixaren felizitatea* ipuinarengatik.

ANOETA ▶

Jubilatuek ez ohiko bilera egingo dute

Alkartasuna jubilatuek elkarte-ko kideak ez ohiko bilerara deitu ditu zuzendaritzak, astelehenean, urtarrilaren 3an, 18:00etan, Biltokian. Oraindik Biltokiaren taberna eta sukaldearen ardura hartze-ko inor ez dela azaldu eta, irtenbideak eztabaidatzeko egingo da bilera.

ANOETA ▶

Yoga eta eskulanean ikastaroak

Anoetako Udalak yoga eta eskulanean ikastaroa antolatu ditu, urtarriko bigarren astean hasteko. Izena emateko udaletxera jo behar da.

ALKIZA ▶

Maiatz akordeoi orkestaren kontzertua

Maiatz akordeoi orkestrak Alkizan Urte Berriko kontzertua eskainiko du. Etzi igandea izango da hitzordua, San Martin Elizan, goizeko 11:00etan hasita.

URTEBERRIKO EGITARAUA ▶

Urte hasieran ere egitarau oparoa izango da

Asteasu, Irura, Anoeta eta Villabonan Erregeen kabalgata egingo dira asteazkenean

I. GARCIA

Urte hasierak zer ikusi eta zer egiteko aukera emango du eskualdeko herrietan.

ASTEASU

Igandean, urtarrilak 2, Urrezko Aizkoraren lehiaketa, eguerdiko hamabietan hasita. Urtarrilaren 5ean, Erregeen desfilea, 20:30ean. Urtarrilaren 6an, goizeko 10:00etan, Nazioarteko Ziklo-kros proba.

ANOETA

Urtarrilaren 5ean, asteazkena, Erregeen kabalgata 19:00etan irtengo da Basagain menditik, Loatzo Musika Eskolako eskusoinujoleek alaiturik. Frontoian goxokiak banatuko dituzte. Urtarrilaren 6an, Anoetako Txistulari Taldearen kalejira 12:00etan.

IRURA

Bihar, 11:00etan, Urteberri

eguneko meza nagusia. Etzi, 10:30ean meza nagusia eta ondoren Eguberritako abestiak elizan, Irurako haurtxoen taldeak, Irurako Parrokiko Abesbatza eta Oiartzungo Lartaun abesbatzarekin. Urtarrilaren 3an, 17:30ean, Ikastolako ekitaldi aretoan antzerki irakurria herriko haurren eskutik. Urtarrilaren 4an, 17:30ean Zaharren Biltokian ipuin-irakurketa herriko jubilatuen eskutik. Urtarrilaren 5an, 18:00etan, eliz-aurreko arkupean jaiotza

lehiaketako lanen erakusketa eta sari banaketa. Ondoren, txokolate beroa. 19:00etan kale Errege Magoak eta ondoren plazan haur guztiei opariak banatuko dizkiete.

VILLABONA

Etzi, haurrentzako zinema Gurrean: *Shrek 2* filma, gaztelaraz, 17:00etan. Urtarrilaren 5ean, Erregeen kabalgata aterako da 19:00etan. Amasatik Errebote plazara ino ibilbidea eginez.

ZIZURKIL ▶

2005 urteko egutegiak eskuragarri

Zizurkilgo Udaleko Kultura eta Euskara sailak 2005 urteko egutegiak atera ditu, *Ziba batean euskara magalean* euskara planaren baitan. Egutegia Zizurkilgo argazki zahar eta berriez osatua dago. Nahi duenarentzat, Aurrerera plazako udal bulegoetan eta udaletxean egongo dira eskuragai.

MAXOLA TABERNA
 Erribea, 4
 Tel.: 943 69 05 91

Tel.: 943 69 40 01
 Erribea, 19
VILLABONA

JOE BAR

Ustargoi
 Antxin, 1-2 • VILLABONA

Ospatu urte berria gurekin!

GUTUN@K ▶



Denona, denok

Gaur egun, Amezketa Ametzak taldeak (Amezketa %45) ez dauka erabakirik harterik udaletxean. Ametzak taldea soluziorako bide estraofizialaren aldekoa izan bada ere, beste bi taldeek bide ofiziala aukeratu dute. Dagokigun ordezkariak lortzeko bidea bada, gu prest gaude bide hori onartzeko, baina seriotasunez.

Txindokipe taldeak utzi zuen guri zegokigun kargua. Guk konpromisoa hartu genuen, dagozkigun hiru karguak hartzeko moduan garenean, hautakundeetan herriak eman zizkigun hiru karguak hartzeko. Bi, oraindik, Ametzak Elkarlanean taldeak dauzka. Ez ditu utzi. Idatziz jakinarazi

digute bi kargu utziko dituztela, baina oraindik ez dute kargurik utzi. Alkateak esan digu aurrena herriko arau subsidiarioak onartuko dituztela eta gero etorriko direla dimisioak. Hori ez da koherentea.

Aurrena herriari soluzioa eman nahi diotela esan. Egoera injustu hau konpondu nahi dutela esan. Bi kargu utziko dituztela agindu eta hori egiterako arau subsidiarioak onartu.

Arau horiek ez dira izango Amezketa arau subsidiarioak. Ametzak Elkarlanean arauak izango dira. Beraz, amezketarren %35a ordezkatu dute. Gainerako amezketarrek ez al dute eskubiderik arauen inguruan erabakitze-ko? Ondorengo urteetan nolako herria nahi duten adierazte-ko? 150 amezketarrek (amez-

ketarren %16) sinatutako alegazioek ez al dute kontuan harterik mereri? Ez al dira errespeta-garriak? Ze sinesgarritasun izan behar dute herriaren gehiengoa mespretxatzen eta gutxiesten duen talde batek egindako arauak?

Ez zaigu serioa iruditzen egoera konpondu nahi duzuela esan eta datozen 20 bat urtean Amezketa nolako izan behar duen erabakitzen ez utzte.

Ez da etikoa ilegalizazioaren kontra hitz egin, hori konpondu behar dela esan, eta zuen arauak aurrera ateratzeko hori aprobetxatzea, guri egin diguten tranpaz baliatzea. %45ari bizkarra ematen diotenengan ez da ageri konponbiderako gogo handirik. Hala bada, argi esan.

Herriko egoera komiko honi konponbidea emateko zer horberik Ametzak arauak amezketar guztiok erabakitzea baino? Ez da hain zaila. Nahi izatea basta. Nahi bada hala bedi.

AMETZAK TALDEA ▶ AMEZKETA

1959an jaiotakoei

1959an jaiotako ugartear eta amezketar guztiak:

Aurten lehenengoz elkartu garenez, urte askoan elkartu gaitezen.

Bazkarira etorri zirenei eta etortzerik izan ez zuten guztiak, denei, zorianak eta Urte Berri on!

JOXEMARI GOIKOETXEA ETA MARTIN
URTAZA ▶ AMEZKETA

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leizta.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzarano autob.: 948 221015

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leizta): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R., Zabalzarreta, 1

(Tolosa). 943 673849

Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leizta).

112

Bihar. Bronte, C. Korreo 20

(Tolosa). 943 676013.

Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leizta).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

ALEGIA ▶ MUSIKA

Kantari hasiko dute urtea

Txintxarri-k Urte Berri eguneko mezan abestuko du, urtero bezala



Abesti ugari eskainiko dituzte abesbatzako kideek. HITZA

OLAIA ESKITXABEL

Bihar, Urte Berri egunean, Alegiako Joan bataiatzailearen elizan meza nagusian kantatuko du Txintxarri abesbatzak urtero egin ohi duen bezala. Goizeko 11:15ean hasita, hainbat kantu eta obra eskainiko ditu Garbiñe Orbegozo aletararen zuzendaritzapean hogeita hamar ahots nahasiz osatutako abesbatzak.

Mezako obrarik garrantzitsuenak Joseph Callaerts konpositorearen *Gloria* izango da. Mezetan zehar Felix Mendels-

sohnen *Berri bat* abestia, Lucas Guridik armonizatutako *Oi zein eder* abesti herrikoa edota Tomas Araguesek konposatutako *Suite de Navidad* obratik *Oi Betlehem* eskainiko dituzte.

Emanaldia amaitzeko *Mesias sarritan* abestia eskainiko dute; kantu honen doinua B. Er-cillarena da eta letra, berriz, Balbino Garitaonandia presbiteroarena. Xefe Balerdi bakar-lariak jarriko dio ahotsa kantatuaren zati bati eta Mariaje Re-kondok lagunduko dio organoan.



Ametzak taldearen protesta

AMEZKETA ▶ Ametzak taldeak hainbat pankarta jarri ditu herrian «dagokien ordezkariak aldarrikatzeko». Ametzak Elkarlanean taldeko bi zinegotzik, «Ametzak taldeari agindu bezala», kargua uztea eskatzen dute; eta ez, arau subsidiarioak onartu eta gero, «alkateak esan duen bezala». Hori guztia salatuz, pankartak ikus daitezke herrian zehar. HITZA

IBARRA ▶ KIROLAK



Australiar dira Fernandez eta Martinez Munduko Birarako entrenatzen jarduteko. HITZA

Xabi Fernandez Australiar da Mundu Birarako prestatzen

Azaroan hasiko den Mundu Birarako entrenatzera joan da Iker Fernandezekin batera; martxora arte izango dira han

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den astean Tolosaldeko 2004 kirolari onenaren sari nagusia irabazi ondoren Xabi Fernandez Australiar da bere hurrengo probrarako prestatzeko.

2004a urte paregabea izan da Xabi Fernandez ibartarrarentzat eta Iker Martinez hondarribarrarentzat, Atenasen jokatu ziren Olinpiar Jokoetan belan 49er modalitatean urrezko domina lortu baitzuten eta bestalde, Munduko Txapelduak izan dira.

Gipuzkoarren hurrengo erronka Volvo Ocean Race, Munduari biran parte hartzea izango da. Hain zuzen ere, rega-

ta honetan lehiatuko den Telefonica MoviStar taldean ariko dira.

Horrela, Xabi eta Iker Pedro Campos patrioiak zuzentzen duen taldearen osagai izateko deitu dituzte. Taldekide bezala, bela munduan ospe handia duen Bouwe Bekking australiarra izango dute. Bera izango da ontziaren ardura nagusia izango duena, eta Martinezek lagunduko dio lan honetan. Bouwe, horrelako probetan duen urtetako esperientziak baliatuko da ontziari ahalik eta etekin handien ateratzen, baina muga gainditu gabe, haustura txiki batek proiektu guztia hankaz gora jarri baitezake.

Xabi Fernandez eta Iker Mar-

tinezentzat Munduari Bira honetan parte hartzea txikitatik zuten ametsa errealitate bihurtzea izan da. Erronka handia dela beraiantzat aipatu dute, eta 49er modalitatean duen esperientziak baliatuko direla taldeak emaitza onak izan ditzan.

Datorren urteko azaroan Viegotik abiatuko da bira eta 57.000 kilometro egin beharko dituzte guztira.

Proba gogorra izango da eta lan handia egin beharko dute hilabete hauetan; horretarako Australiara heldu berri dira ibartarra eta hondarribarra eta martxoa bitarte izango dira bertan Munduko Koparako entrenatzen.

BERASTEGI ▶

Lehenengo San Silvestre herri krosa gaur

Berastegiko Urepele elkartearen urteurrenean eta gazte elkarteko kirol taldeak antolatuturik gaur egingo da I. San Silvestre herri krosa. 18:00-etan abiatuko dira korrikalariak eta guztira 5 kilometro egin beharko dituzte prestatu duten ibilbideari lau buelta emanez. 50 lagun inguruk eman dute izena kroserako. Sariak ere izango dituzte, herriko hainbat denda eta jate-txek laguntzak eman baititu; beraz, trofeoa izango da irabazleentzat eta parte-hartzaileen artean afariak, kirol dendarako baleak, txuletak eta ardo botilak zozketatuko dituzte besteak beste.

IBARRA ▶

Hilerriaren zerbitzuaren kudeaketa

Pasa den abenduaren 29an egindako ohiko osoko bilkuran, Udal hilerri zerbitzuaren kudeaketarako eta ustiapenerako kontratuaren esleipena zehaztu zuten. Eta bertan adostutakoaren arabera, 2005ko urtarrilaren 2tik aurrera hilerriko zerbitzua Landarri S.L. enpresak eskainiko du. Enpresa honen zerbitzuekin harremanetan jartzeko 943 340467 edo 610 552552 telefono zenbakietara hots egin beharko da. Internet bidez harremanetan jartzeko, errenteria@tanatorio-donostialdea.com helbidea erabili dezakete interesatuek.

IBARRA ▶ KULTURA



Kixka taldearen Bolaluma antzezlanean haur ugari bildu zen. i.t.

Gaztetxoentzako egitarau berezia

Ibarrako Udal kultura eta Gazteria sailak antolatuturik aste honetan etxeko gaztetxoentzako egitarau bereziaz gozatzeko aukera izan dute. Izan ere, Benito Izagirre kultur etxean bideo emanaldi eta antzerkiak izan dira ikusgai. Harrera handia izan dute eta txiki asko gustatu zaizkie saioak. Horien artean Kixka taldeak eskaini zuen Bolaluma antzerki saioa; haur ugari bildu ziren eta baita hauen gurasoak ere, guztiek ederki pasa zutelarik.

HITZA **txokoa** ^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 31, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzasketa, Adura, Abotzu, Alega, Aliza, Alzo, Amerieta, Aneta, Bakarran, Belauntza, Berastegi, Etxain, Herrialde, Itarra, Inara, Lantzi, Leizorri, Luizarte, Omeñaca, Ome, Tolosa, Vilatorra, Zuzakila
besteriak: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaureritza.
Kultura Salla

943
HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

11

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Haur egitaraua 10:00etatik 13:00etara Karrapen.
Tolosa. Merkatu Txikia Kultur Etxean.
Tolosa. VII. San Silbestre Elkartasun Krosa 16:00etatik aurrera Alde Zaharrean.
Tolosa. Poxpolo ta Mokolo pailazoak. Leidorren 18:00etan.
Tolosa. Musika Bandaren kalejira 20:00etan Alde Zaharrean.
Tolosa. Urte Zaharreko festa Irazki elkarteak antolatuta. 16:00etan txorimaloen erakusketa Trianguloan, 23:30ean testamendu satirikoaren irakurketa Abastos plazan, 24:00etan txorimaloaren erreketak Belaten eta 00:30ean musika festa Abastosen.
Tolosa. Meza abestua. Bihar 11:00etan Santa Marian.
Tolosa. *Los increíbles.* Bihar 19:30ean eta 22:30ean Leidorren.
Villabona-Zizurkil. San Silbestre krosa 16:30ean.

KIROLAK

Tolosa. Eguberritako XXIII. Shanti Torneoa Berazubín. 9:30 Climaxvic A-Kobrak (B), 10:15 Climaxvic B-Iztzuli (B), 11:00 Climaxvic- Panterak (F-B), 11:45 Ugara-Fronton (F-B), 12:30 Tornados-Los tibus (C)



Zezen-plazan pistaboz egindako jaiotza ikus daiteke egunotan. J.SAIZAR



Larraitzeko Ñañarri jatetxeko jaiotzaren zati bat. O.ESKITAABEL

Irudimena jaiotzetan islatuta

TOLOSALDEA ▶ Abaltzisketan, Amarotzen eta zezen-plazan jaiotza ikusgarriak jarri dituzte: handiak, lan asko egindakoak, orijinalak...



Amarotzen eskola ondoan dagoen jaiotzak errota, putzua, gurdia eta dena ditu. JOXEMI SAIZAR

ERREDAKZIOA

Jaiotza ugari ikus daiteke egun hauetan eskualdean. Orri honetara hiru ekarri ditugu, hilabetetako lana emandakoak. Amarotzen Udalak utzitakoa konpondu, margotu eta berritu dute, pieza berriak erantsiz Jose Sagastibeltzak. Zezen-plazan pista-txoz egin du aurten Enrique Lopezek, beste batzuen laguntzarekin. Eta Larraitzeko Ñañarri jatetxean gela osoa hartzen duen jaiotza egin dute.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Inhar Jauregi (Belauntza).
Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat ebekoan partetik.



URTE ASKOAN

Nagore Ausin Insausti (Tolosa). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu bat ebekoan partetik.



URTE ASKOAN

Iban (Ibarra).
Bihar urteak.
Zorionak ebekoan partetik.

HITZA,
zorian agurren
tarteak

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!



ZORIONAK GUAPISISIMA!

Biharko partez. Noizko prestatu behar diguzu bazkaria? Muxubuek!!

HITZA-KO
JERTSE BERRIA
ESKURA

Gertuen duzun
egoitzan
lor dezakezu

Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA